

...eta

kittō!

900 zkoa.
2014-IX-19

Metro Goldwyn Mayer

TRADE

MAR



Coliseoa berriro zabalik

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean



ASTEAN ESANAK

"Estatu Batuetan 2007an eztanda egin zuen moduko beste higiezin-burbuila baten aurrean gaude. Jendeak jarritzen du pentsatzen onena propietate batean inbertitzea dela. Ekonomiaren %75 ondasun galkorrak dira: hanburgesak saltzeak eta erosteak ez du arazorik ematen. Baina iraunkorrak, etxeak moduan, bai sortzen dituztela, Adam Smith-ek zioen moduan 'beste baten diruarekin' erosten direlako"

(VERNON SMITH, NOBEL SARIA 2002-AN)

"Oso arduratuta nago shadow banking-arekin. Bankuek krisira eraman gintuzten praktikek bultatu dira, berriro gainbaloratuta dauden deribatu exotikoetan hasi baitira inbertitzen. Eta hori ez da ona. Hiru urte baino lehenago zuzenketa garrantzitsua egin beharko da. Ez da aurreko krisia bezain handia izango, baina hamar bat puntuko jaitsiera emango da Wall Street-en. Bost puntu merkaturuan beheranzko joera da; hogeitu puntu, crack-a"

(DANIEL MCFADDEN, NOBEL SARIA 2000-AN)

"Larogeigarren urtetik, inflazioak gora egin du herrialde aberatsetan, batzuek beste, %3,2 urtero. Eta erosteko ahalmena erdira gutxitzen da 22 urtero. Horregatik, aurrezkiak beste zeozerekin konplementatu behar dira. Bere pentsioa bakarrik duenak bere sarrerak %50 gutxitzen zaizkiola ikusiko du. Hori okerrera doa"

(WILLIAM SHARPE, NOBEL SARIA 1990-AN)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KARGA.- Takada batean norberak lepuan eroan dezakeen pisua: belarra, egurra...

KARGA-BEDAR.- Besada bat belar. Belar-karga. "Oñiñ iñor ez dago basarrixetan usauta karga-bedarrik erutzen".

KARGABAR.- Besada bat egur. Erderazko 'haz de leña'. "Kargabarrak, labarako su-geixa".

KARGA-JASOTZIA.- Harri-jasotzea. "Karga-jasotze berua ei da domekan Deban".

eskutitzak

EIBARKO FUTBOLZALEAK DISKRIMINATUTA

Beti izan naiz diskretioa, lasaia eta zarata handien etsaia eta, foballaren algaratik ihesi, Ipuruko dorreetatik Elgetako baretasunera bizitzera joan arren, bada zer bait ernegetzen nauena biziki: Eibarko jendea nola tratatzen duten Gipuzkoako -edo, hobe esanda, Donostiako- prentsan. Azalduko dut: konparazioan ez da profil berbera irudikatzen Errealeko eta Eibarko zaleen argazkiak ateratzean. Egin kontu: Errealzaleen argazkiak afizio ponpoxo, dibertso eta garbiaren ispilu dira, gazteen presentzia nabarmenarekin. Aldiz, Eibarzaleen argazkietan beti harroputz, edanzale eta

keinu okerreko itxurak agertzen dira. Gaizki pentsatuta, badirudi mezu ezkutua nahi dutela eman: "1. Mailara igo arren, eibartarrak 2. mailako jendalla arlotte artaburuak dira". Ados, Eskozia La Bravakoak ez dira Donostiako peñakoak bezain "glamourosoak" izango (ezta hauek bezalako sosongo eta itxiak); halere, foball zelaiak denak berdintzen ditu -Cristiano Ronaldo eta Arruabarrena, Gaztelubideko danborreroa eta Supermendikute-. Horrenbestez, udal agintariei dei egiten diet geure ohorea eta izen ona defendatu dezaten.

JOSE ANGEL PEREZ

1743

Horiek dira Eibar eta Kordobako presoedegiarren artean dauden kilometroak joan eta etorriko bidaian. Kordoban dago preso Ibon Muñoa Arzimendiarieta eibartarra eta aurreko asteburuan berari bisitatza joan nintzen.

Barixaku eguerdian ahaide eta lagunekin geratu eta, azken aholkuak jaso ondoren, Iruñea aldera irten nintzen nire autoan. Beste senide bat hartu eta Kordobarako bidaiari ekin genion. Berak kontatu zidan sennarra daukala espetxeratuta, 15 egunetik behin jaitzen dela eta, normalean, beste senide batzuekin egiten duela furgonetan bidaia. Furgonetan preso baten 82 urteko ama ere joan ohi dela eta, hankak handitzen zaizkionez, bi orduko gelditu behar direla. Kordoba ondoko herri bateko ostal batean lo egin eta zapatu goizean, 09.00etarako espetxean egon behar da.

Ibonekin bisita ongi joan zen. Kontuan izanda 20 bat urte izango direla Ibon azken aldiz ikusi nuenetik, apur bat ile gutxiagorekin, baina beti bezain kementsu

aurkitu nuen. Eibarko berrien inguruan hitz egiten jardun genuen (Ipuruko foball zelaiaren handitzea, Podemos-en aukerak hurrengo hauteskundeetan, gure proposamenak udal gobernu lortzeko, etab.). 40 minutuko bisita azkar pasatzen da, baina nahikoak dira 14 urte preso daramatzen persona baten bizi nahia jasotzeko. Bisita ondoren, berriz ere autoan sartu eta bueltako bidaiari ekin genion. Zapatu gaueko 21.00etan heldu nintzen etxera, 1.743 km egin ondoren. Honakoak izandako gastuak: gasolina (70 euro bakoitzak), ostala (22 euro), barixakuko afaria eta zapatuko bazkaria (20 euro). Aipatutakoari istripu bat izateko arrisku ordainezina gehitu behar.

Ados egon zintezke edo ez pertsona horiek egindako jarduera politikoko edo politikoko-armatuarekin; baina, astero-astero preso horiek bisitatza joaten diren familiengan pentsatuz, noiz ekarriko dituzte Euskal Herrira?

IGOR ALDALUR ZENDOIA



Euskara Elkarteak

ARGITARAZTARTEA: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com **Elkartaren E-MAILak:** elkarteak@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,

Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBUZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALA:** S. Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.150 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Jaixak Legarre auzuan

Gaur 20.00etan txupinazuarekin hasiko dira jaixak Legarren. Jarraixan, Legarreko zaharren egoitzatik jaixetako txosnaraño kalejiran juango dira danak, trikitalari eta buruhandixak lagunduta eta, behiñ hara aillegauta, patata-tortilla txapelketia hasiko da. Tortillak egitten amaittu eta segidan, 21.00ak aldera auzoko umiendako afarixa preparauko dabe eta, afalostia girtzeko, auzokuak txistiak kontatzen jardungo dabe, 22.30xetan disko jartzailliak eta dantzarako musika aillegau arte.

Eta bixar eguardixan atzera be trikitalarixak lagundutako kalejiria eginda ekingo detse jaixari. 12.30xetatik aurrera txorizo pintxo-potia ekingo da Piztu alkartian eta jarraixan umiendako joko eta bestelakuak egingo dittue. Herri bazkarixa 14.30xetan hasiko da eta, jandako guztiak pixka bat "jaiysi" nahi dabenak horretarako aukeria eukiko dau, 16.30xetan Etel eta Agirrerekin dantzaldixa hasiko da. Ordu bete geruago "Trastelekua" umiendako ikuskizuna eskinduko dabe Zurrumuru taldekuak eta 19.00etan txokolat-



Zurrumurrukuak barriro izango dira Legarreko jaixetan. LEIRE ITURBE

jana hasiko da. Illuntzixan kalejikia egingo dabe, buruhandixekin eta 20.30xetan Xero Xetterekin erromerixa guruan dantzan egitteko aukeria eukiko dabe nahi daben guz-

tiak. Eta jaixak agurtzeko, 23.00etatik aurrera Legarreko musika lokaletan ensaiatzen dabenetako talde bik, The Vartools eta Norman taldiak kontzertua emongo dabe.



Paella lehiaketian parte hartu ebenetako batzuk. LEIRE ITURBE

Edarto Barrenako jaixetan

Aurreko zapatuan primeran pasau zittuen jaixak Barrena aldian: eguardittik aurrera ekin zetsen programiari, paella lehiaketia eginda. Hori amaittuta, preparautako paella jateko herri-bazkarixa hasi zan jarraixan eta, arratsaldian, umiendako jolas eta mus txapelketiarekin batera, illuntzeko patata-tortilla txapelketiak eta afarixak biribildu eben programia.



Agur Kofradixa egunari

Aurreko domekan Kofradixa eta Basarritar jubilaueen egunian eguraldixa lagun euki eben jaixarekin bat egittera animau ziranak, ixa eguna amaittu arte: goiza Simon Aldazabal XIX. Antxixiketaldixak, mezia eta prozesiñuak eta paella lehiaketiak bete eben, Kantabriara bazkaltzera juateko ordua aillegau arte. Eta arratsaldian, idi probekin batera aillegau

zan eurixa Arratera. Hiru idi patriak euripian egin zittuen probak, baiña lurra bustitta egotiak mesede egin zetsen itxuria, oso marka onak lortu zittuen-eta: Iñaki Lopategi eta Luis Arregiren idixak nagusittu ziran probalekuan, 54 plazarekin. Oliden eta Lopenaren paria bigarreña izan zan (52 plaza) eta Aitor Olarrearena hirugarreña (49 plaza).



- **tartak**
- **enkarguak**
- etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Radio Eibar

C A D E N A

SER

104,0 FM



LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Gaur erabakiko da Egunkaria epaitu ala ez

Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak Egunkaria auziko pieza ekonomikoaren epaiketa egin edo ez aztertuko du gaur eta auzipetuei batesa eman eta auzia salatzeko hainbat ekimen egin dira aste honetan (atzoko elkarretaratzea tarteko), Egunkariaren alde elkarteak antolatuta.

Sorrera 2003ko Madrilgo Exekutiboan eta garapena Madrilgo Auzitegi Nazionalan izan arren, Gipuzkoako epaileei erori zaie altzora auzia: hangoek hasitakoari hemengoek amaiera eman behar.

Inoiz izan behar ez zen Egunkaria auziak 2010ean Madrilgo Auzitegi Nazionalan egindako epaiarekin behin betiko amaitu behar zuen, baina honaino jarraitu du eta kaltea jada eginda dago. Euskal jendartearen memoria kolektiboan iltzatuta iraungo du Egunkariaren itxiera eta auziak: kalte per-

Epaiketarik ez!



www.egunkaria.info

Eman atxikimendua

tsional eta sozial larriak egin dira jada, eta oraindik ez dira amaitu. Auzitegi Nazionalak berak absolutu egin zituen auzipetuak, eta kalteen aitortza ere egin zuen hein batean; ordainik ez omen da izango, ordea. Auzia dagoen horretan bertan behera lagatzea da orain irteera egokienetzat jotzen dena.

Bien Aparecida Jaixak




Ronda El Midiajuk Ipuruatik Untzagara aldera Lambretta motorretan egindako kalejira ikusgarria izan zan aurreko zapatuan eta illuntzian herriko erdialdian eskindutako kantuak oso harrera ona euki eben kalia eguan jendiaren alde-tik. Kantabriako Etxekuak antolatutako Bien Aparecida jaixak asteburu honetan jarraituko dabe, zapatu eta domekarako preparau dittuen joko eta txapelketekin.

autuan

SARE

Eibarko Sarek, "dispersiñua eta salbuespeneko espetxe politikarekin behingoz amaitzeko" mugarrira jartzera eta gaur Bilbao Arenan 18.00etan hasiko dan eibaldira juatera gonbidatu nahi dittu eibartar guztiak.




MEXIKOTIK IPURUARA

Partidua galduta be, pozarren segidu eben Eibar foball taldiaren jokua astelehenian erretratuan ikusten dittuzuen Nekane Iriartek eta ama Arratek. Izan be, Guadalajararen (Mexikon) bizi diran eibartarrak ...eta kitto!-ren bittartez segitzen dabez herriko albistiak eta egunotan hamen daguzenez, ilusiño haundixa egin zetsen Ipuruara juatiak.



Funeraria-Ehortsetze
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>	 <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehorte Taldea</p> 	



JOSE ACHA EGIGUREN

(2014-VIII-4)

Senideen izenean, ESKERRIK ASKO hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.

asteko
21.000
datua

turista, iaz baiño %10 gehixago jaso zittuan gure eskualdiak ekaña, uztailla eta abuztuan eta Deban eta Mutrikun alojamentuen %100 bete ziran. Bisitan etorritakuen %39 Espainiakuak ziran, %28 atzerrikuak eta beste %33ak hamen ingurukuak.



Zuazuari errekonozimendua

Enrique Zuazua matematikuak Frantziako Lorraino Unibersidadaren Doctor Honoris Causa gradu eta titulua jaso ditu, zientziari egin detsazen ekarpenen garrantzixarengaittik eta Marius Tucsnakek zuzentzen daben Elie Cartan instituziño horretako Matematika institutuarekin egindako alkarlan oparuarengaittik. Eibartarrak datorren urriaren 9xan jasoko dau errekonozimendua, Frantziako iparmendebaldian dagan Nancy hirixak hartuko daben ekitaldixan. Enrique Zuazua (Eibar, 1961) Madrilgo Unibersidade Autonomuan Matematika Aplikauetan katedratikua da eta, horrekin batera, Ikerbasqueko ikertzaillia eta BCAM (Matematika Aplikauetako euskal zentruko sortzaillia eta zuzendari zientifikua be bada). Lorraino Unibersidadeko Pierre Mutzenhardt presidentiaren eskutik jasoko dau errekonozimendua Zuazuak eta inbestidura-hitzaldixan "Matemáticas: Una ventana al futuro" goiburuari segiduko detsa.

Presentau dabe aurtengo Sagardo Eguna

Urrixaren 4an, ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatutako Sagardo Egunaren 21. ediziñuan, Gorenak alkarteko 13 sagardotegixetako sagardaua edateko aukeria egongo da Untzagan (Alorrenea, Alzueta, Barkaiztegi, Begiristain, Egi-luze, Gartziategi, Gaztañaga, Gurutzeta, Isastegi, Olaizola, Sarasola, Zapiain eta Zelaia). Aurreko ediziñuetan lez, tiketak 6 eurotan salduko dira eta, hori pagauta, edalontzixa, zapixa, pintxua eta nahi beste sagardau edateko aukeria eukiko dau jendiak. Egun osuan ospatuko da sagardauaren inguruko jaixa, goizez 12.00xetatik 14.30xetara eta arratsaldez 19.00etan hasi eta sagardau guztia amaittu arte.

Eguaztenian Iruki sagardotegixan aurkeztu eben ekitaldixa Juan Barahona ...eta kitto! Euskara Elkarteko presidentiak, Maider Aranberri alkarteko idazkarixak eta Miguel Zapiain, Gorenak alkarteko ordezkariak. Azaldu ebenari jarraituta, aurten barritasun eta jarduera osagarri morduarekin jantziko dabe ekitaldixa: Sagar-



Maider Aranberri, Miguel Zapiain eta Juan Barahona haraiñegun Iruki sagardotegixan egindako aurkezpenian.. SILBIA

do Egunaren eta sagardaua egitteko prozesuaren inguruko argazki erakusketia (irailaren 27tik urriaren 3ra arte, Untzagako jubilau etxian) eta Egoitz Zapiain enologuak gidatuko daben sagardau-dastaketia (urriaren 1ian, 19.00etan Iruki sagardotegixan, izen-emoitia duan, irailaren 18tik 29ra, 943200918 telefonora deittuta, gehixenez 20 lagun), Eibar-Real Madril partidurako sarrera biren zozketia, Sagardo Egunion eteratoko "selfie" lehiaketia eta beste hainbat antolatutako ditte.



Garraietarako tarifa planua

Gipuzkoako PSE-EEK Debabarrendako mesedegarria izango dan tarifa-planua, hillion 25 eurokua ezarri nahi dau Gipuzkoako herriarteko garraio publikorako. Batzar Nagusixetan halan eskatuko dabela emon eben aditzera eguaztenian, Eibarko Casa del Pueblon egindako prentsaurrekuan. Tarifa bakar horrek Lurraldebus eta Euskotren enpresen zerbitzueri eragingo zetsen eta asmua, Mugi txartel personalizaua dakeneri 25 euruetatik pasatzen dan diru-kopurua hurrengo hillion bueltan emotia da. Agerraldixan Debabarrena "txarto kumunikauta" da-

guala salatu eben eta Bilbora juatia Donostiara juatia baiño merkiago eta erosuagua izatiari "kafkianua" deritze. Eneko Anduezak hori irudikatze ipiñittako adibidiari jarraituta, "egunero Donostiara biharrera juan bihar daben batek, bataz beste 40 juan-etorri egittan badittu, noizbehinkako txartelak balixo dittuan 4'5 euruk ordainduta, hillion 180 euro gastaoko littuzke eta Mugi txartela erabillitta, barriz, 89'08 euro, eta hori kontuan hartu barik Eibarren edo Donostian bertan mugitze beste garraibideren bat hartu biharra gerta leikiala".



ELO MELLIDEZ (euskaltegiko ikasle ohia):

“Diru-laguntzak ezinbestekoak dira langabetuek euskera ikasteko”

- Noiz eta zelan animatu zinen euskara ikastera?

Arrazoi bat baino gehiagorengatik erabaki nuen euskaltegian izena ematea. Orain dela pare bat urte, magisteritza ikasten nengoela, EGA lortzeko asmoz hasi nintzen euskaltegira joaten. Eibar-koa naiz eta hemen ikasi dut, baina eskolan ikasitako euskerarekin bakarrik ez nuen lortuko nahi nuena, EGA edo HABE-ren 3. maila gainditu ahal izateko euskeraz jakitea baino zerbait gehiago behar da: ondo idazten jakin behar duzu, Euskaltzaindiaren azken idaztarauak zeintzuk diren jakin... Horregatik, horiek guztiak ondo ikasteko euskaltegira jo nuen eta urte bi ikasten eman eta gero, EGA gainditzea lortu nuen.

- Asteazkenetan joaten zinen klasera?

Lehen urtean oraindik ikasketak amaitu barik nengoen eta, beraz, ezin nuen horrenbeste denbora eman bakarrik euskera ikasten, baina bigarren urtean, egiteko beste ezer ez nuenez, ikastaro trinkoan izena eman eta egun osoan buru belarri, bakarrik euskera ikasten ematen

nuen eguna. Klasera astelehenetik barixakura joaten nintzen, goizero lau ordu egiten nituen han eta gero, etxera bueltatzean, arratsaldero klasean ikasitakoak begiratzen nituen.

- Eta nolakoak ziren klaseak? Zer egiten zenuten?

Oso giro ona eta polita egoten zen eta euskera ikasteko gauza ezberdin asko egiten genituen: fitxak bete, ordenagailuan hainbat jokorekin ariketa ezberdinak egin... pixka bat denetarik. Egia da

Eibarko langabetuek %50eko deskontua izango dute zuzenean euskaltegian matrikula bete eta berehala

Eibarko Udalak ikasturte honetan euskara ikasi nahi duten langabetuentzako tasa bereziak onartu ditu.

Horrela Udal Euskaltegian edo AEKn izena ematen duten langabetuek bakarrik **MATRIKULAREN ERDIA** ordaindu beharko dute. Helburu nagusia gure herriko langabetuek euskara ikasi eta lana topatzeko erraztasunak izatea da. Baina ez da hori helburu bakarra: euskaltegietan euskara ikasi, maila hobetu edota ziurtagiriren bat lortzeaz gain, harreman-sareak zabaltzen dira eta horrek ere lana aurkitzeko aukerak zabaltzen dituela diote. Eta horrekin batera norbera aktibo mantendu, ikasteko grina piztu, lagun berriak egin, komunikatzeko gaitasuna hobetu eta beste hamaika onura aipatu daitezke. Aurreko ikasturtean euskera ikasteko Udalaren diru-laguntza jaso zuen Elo Mellidez ikasleak bere esperientzia kontatu digu, bere moduan beste batzuk ere euskaltegira joaten animatzeko. Izan ere, matrikulazioa zabalik dago herriko euskaltegi bietan, Udal Euskaltegian eta AEK-n; eta, animatuz gero, oraindik izena emateko sasoiz zabiltzate.

gogorra egiten dela, edozer gauza ikasteak lana eta ahalegina eskatzen duen aldetik, baina era berean oso modu atseginean ikasteak egin beharrekoa asko arintzen du.

- Aurreko kurtsoan hasi ziren langabetuentzat diru-laguntza bereziak ematen. Zu onuradunetako bat izan zinen, ezta?

Bai, eta horrelako laguntza benetan eskertzen da. Matrikulak balio duenaren erdia Udalak bueltatu edo bere gain hartu ezean, askok ezin izango lioke aurre egin. Diru-sarrerarik ez duenarentzat matrikula osoa ordaintzea oso garestia da. Niri lehen kurtsoa gurasoek ordaindu zidaten, bestela ezingo nuen egin. Horregatik euskera ikasi nahi duten askorentzat horrelako diru-laguntzak benetan garrantzitsuak dira.

- Eta gerora, lana bilatzeko orduan lagungarria da euskeraz jakitea?

Gaur egun uste dut edozein lanetan, berdin da kualifikazio handikoa zein txikikoa izan, euskera jakitea garrantzitsua dela eta norbait kontratatatu nahi duenak horri begiratzen diola, bai.

Ekaiñetik daroiagu zine barik Eibarren, Coliseoak jendiari bere atiak itxi eta egokitzapen laneri hasi zetsanetik. Asteburu honetan hasiko dira barriro zine emonaldixak eskintzen; hori bai, urriaren erdiraño bakarrik Antzokixan emongo dira pelikulok, beste bi aretuetan konponketak egitten jarraitzen dabezelako. Aittatutako areto hórretako hezetasun arazuak konpondu nahi dittue holan: "Azken errematerako fasian gagoz, jarlekuak barriro ipiñi eta datorren hillabeterako dana jantzita egongo da", esan eben eguaztenian denboraldi barrixa aurkezteko emondako prentsaurrekuan. Horrez gain, bi proiektore digital erosi dittue, tamaiña desbardiñekuak. 100.000 euroko kostua izan dabe hónek adkiszitiñuok.

Coliseoak, 2007xan zabaldu zanetik, hiru areto dittu martxan: auditori-xua printzipalena da eta 400 butakatik gora dittu eta beste bixak, askoz be txikixaguak: "70 butaka izango dittue hamendik aurrera, lehen baiño zeozer gitxiago, abaniko itxuria hartuko daben make-tiari jarraituta". Areto txiki horretako butaka batzuetatik ez ziran ondo ikusten oiñ arte pelikulak. Horregaittik, uztaillaren 14an hasittako obrak hórrek aretuetan zen-trau dira.

Coliseoa 1950ian hasi zan funtzionatzen eta handik 36 urtera, 1986xan, itxi zittuan atiak. Ondorengo proiektuak gorabeherak

izan zittuan, baiña fatxada originala erresetautau, 2007xan zabaldu zan barriro be. Handik hiru urtera, 2010ian, Unzaga ziniak, herrixan geratzen zan azken areto pribatuak, atiak itxi zittuanian, Udalak proiektziñuak Coliseora eramatiaren aldeko apostua egiñ eban, Areto enpresaren bittartez. Azken honek hainbat egokitzapen lan egin dittu, sektorian emoten diharduten formatu aldaketeri erantzuteko. Holan, aretuak euren artian komunikatzeko aukeria egongo da hiru pantaillatan pelikula bera eskindu ahal izateko, eta hor dago be 3D-etan emoteko aukeria.

Proiektua osatzeko, bentilaziño sistemía

barrittuko da, "holan zarata gitxiago entzun dadin". Proiektore digitaletik aparte, proiektuak ia 125.000 euroko aurrekontua dauka.

"El Niño" indartsu hasteko

Normalian gaurkotasun haundiko programaziñua eskintzen dau Coliseoak bere zine egitarauan eta halan jarraituko dau oinguan be, takilla haundixak egitten diharduen "El Niño" pelikulia izango baita ikusgai asteburuan. "El corredor del laberinto", "Un viaje de diez metros" eta "La isla minima" izango dira hurrengo asteburuetan, umiendako



Manolo Fraguas zine-proiektadorea, Jose Luis Gonzalez Kultura teknikarixa, Miguel de los Toyos alkatia eta Esther Kareaga Kultura zifegotzixa, haraiñegun eskindutako prentsaurrekuan. SILBIA HERNANDEZ

Coliseo sasoi barrixetara egokitzen



“Campanilla, hadas y piratas” eta “La abeja Maya” pelikulekin batera. Urriaren 18xan jarriko dira martxan beste areto bixak, programaziñua zabaltzirekin batera: “Tres mentiras”, “Marsella”, “Lasa y Zabala” eta “El protector” dagoz aurreikusita urriaren azken aste horretan.

Halanda be, Coliseoko denboraldi berrira gaur bertan hasiko da, Rosa Cedronek 20.30xetan eskinduko daben kontzertuarekin. Bere txelo eta ahotsari laguntzen jardungo dabe Alejandro Barbosa gitarrarekin eta Javier Cedron bioliñaz. Hurrengo barixakuan, bestalde, Txalo Produzioak-



Rosa Cedronek zabalduko dau gaur, 20.30xetan, Coliseoko denboraldi barrira.

en “Ondoko hilobiko tipoa” antzezlan eskinduko dabe euskeraz Aitziber Garmendiak eta Iker Galarzak, Begoña Bilbaoren zuzendaritzapian. Lan hori be 20.30xetan hasiko da, gaur zortzi.

Programaziño femininua

Haraiñegun egindako aurkezpenian, udal ordezkariak nabarmendu gura izan eben “horren billa juan barik be, gabonak arteko programaziñua iñoiz baiño feminuago urten jakuela”, emakumiak dakan presentziarengaittik.

Kontzertueri helduta, eziñ aittatu barik laga Cielito Musika Bandak eskinduko dittuanak urtia amaittu arte: irailaren 28xan, urriaren 12xan, azaruaren 22xan eta 23an eta abenduaren 21ian joko dau. “40 musikuen taldiari kontzertu bakotxian 350 lagunek jarraitzen detse eta askotan betetzen da aretua”. Urriaren 3an “El ultimo tributo” eskinduko da, El Ultimo de la Fila taldiaren exituekin. Hurrengo egunian, 4an, “Wangari neska arbola” umiendako ikuskizun bikaiña izango da. Eta 10ian kontzertu berezixa izango dogu: Napoka Iria izango da barriro be gurekin, oinguan Iñaki Larrañaga artistaren kolaboraziñuarekin. Hillaren 17xan dantza izango da (NAN, Ertzarekin) eta 24an antzerkixak hartuko dau Coliseo. “Las dos bandoleras” lanarekin etorriko da lantalde bikaiña, hurrengo egunian Gloria Fuertes poeta haundixaren “Alegria, palabra de G.F.” ume eta gura-



Txalo Produzioak “Ondoko hilobiko tipoa” eskinduko dau datorren barixakuan, 20.30xetan.

suendako ikuskizunarekin. Urteroko Musikaldiarekin bat egitteko, oinguan Gemma ahots taldia eta SYC kamara abesbatza etorriko dira gurera, bixak be lehen mailakuak. Andres Egiguren orkestarekin amaittuko da urria eta Usartza Txistulari Bandarekin hasiko azarua.

Azaruaren 8xan Silvia Perez Cruz “Entre cuerdas” lana eskinduko dau, “datorren urteko julixora arte libre zekan egun baka-rrian”. Azaruaren 15ian antzerkixa egongo da, Edgar Nevilleren “El baile”rekin, Pepe Viyuela aktoria tarteko. Hillaren 22xan eta 25ian, Txotxongilluen Jaialdixa aprobetxatuz, umiendako bi ikuskizun izango dira. Abenduan, bestalde, dantza, antzerkixa, kontzertua eta paillazuak etorriko dira.



Euskara Elkarte

Urkizu pasealekua 11, solairuarte
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 20 09 18
elkartea@etakitto.com
www.etakitto.com

U R R I A

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

A Z A R O A

					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

A B E N D U A

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				



...eta kitto!.ko

bazkide izan nahi dut



2 0 1 4 k o
u d a z k e n e k o
k u l t u r
e s k a i n t z a

...eta kitto! Euskara Elkarte



Indianokua gaztelekua

Oporrak amaituta, Indianokua gaztelekua aurreko astean zabaldu zituen ateak. Muzategi kalean dagoen gaztelekua 12-18 urte bitarteko gazteentzat prestatuta eta pentsatua dago eta, jakina, eurak dira protagonista nagusiak: "Hilero programa antolatzen dugu, gazteekin batera: ikastaroak, lehiaketak, jolasak, jaialdiak, tailerrak, filmeak, sukaldaritza, txangoak... egiten ditugu eta, jarduera gehienak gazteleku barruan egiten badira ere, beste batzuk lokaletik kanpora egiteko aukera ere badago".

Urtean zehar gaztelekua zabaltzeko ordutegia aurreko ikasturteko berbera izango da: martitzen, eguazten eta

eguenetan, 18.00etatik 20.00etara; barixakuetan, 16.30etatik 21.00etara; zapatuetan, 17.00etatik 21.00etara; eta domeketan, 17.00etatik 20.30etara. Horrekin batera, gaztelekuko arduradunek azaldutakoaren arabera, "ikasturte honetarako berritasunen artean, aipatzen da gurasoentzat arreta zerbitzua eskaintzen hasi garela eta, beraz, edozein zalantza, kezka, proposamen edo bestelakorik izanez gero, guregana jo eta laguntzen ahaleginduko garela. Horretarako, ahal izanez gero martitzenean 15.00etatik 16.00etara gaztelekura etorri daitezke eta, bestela, gaztelekua zabalik dagoen beste momenturen batean etorrira ere atenditu egingo zaie".



Kurtso hasiera Arraten

La Salle Azitain ikastetxeek Arrateko santutegira bisitan joan eta Eibarko "amatxoren" bedeinkapena jasota ekin diote 2014-2015 ikasturteari. Ikastetxe arduradunek azaldu digutenez, "ibilalditxo eta gero eskaintza-ospakizuna izan genuen. Bertan ikasturterako helburuak eta La Salle ikastetxe guztiek amankomunean duten goiburua aurkeztu zitzaigun: 'Guri dagokigu'. Kurtso honetan hori izango da gogoeta eta ekintza gaia. Amatxoren magaletik pasa ondoren, jokoak egin genituen zelaian eta, betiko lez, partaidetza eta giroa bikainak izan ziren. Bazkaldu eta gero, itzulerari ekin genion. Aurten ere arrakastatsua izan da opor ostean ikasle eta irakasleok bat egiteko eguna. Horregatik, izandako jarrerara eta partaidetzagatik eskerrak eman nahi dizkiegu denei".

URRIA

Irailaren 27tik urriaren 3ra arte:

Sagardo Egunaren inguruko erakusketa. Untzagako jubilatuen etxean. Asteburuan 12.00etatik 14.00ak arte eta astegunetan 19.15etatik 21.15ak arte.

Urriak 1, eguaztena:

Sagardo-dastaketa Iruki sagardotegian. 19.00etan. Egoitz Zapiainen eskutik. Izen-ematea irailaren 18tik 29ra arte (943200918). Doan. 20 lagunentzako lekua.

Urriak 4, zapatua:

Sagardo Eguna, ...eta kitto! Euskara Elkartean eskutik. Egun osoko jaia Untzagan. Gorenak Elkarteko 13 sagardotegitako sagardoa dastatzeko aukera. 12.00etatik 14.30ak arte eta 19.00etatik amaitu arte.

Urriak 5, domeka:

Kilometroak-era (Orio) autobusak. Toribio Etxebarria kaletik. Irteera: 09.30. Buelta 19.30. 10 euro.

Urriaren 6tik azaroaren 10era arte:

San Andres bertso-paper lehiaketarako lanak aurkezteko epea.

Urriak 7, martitzena:

Idazlearekin Harixa Emoten.

Ana Jakaren "Ez zen diruagatik" liburua. 19.00etan Portalean.

Urriak 14, martitzena:

Kike Amonarriz-en "XXI.

mendeko euskaldunak:

"Nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada!" hitzaldia. 19.00etan ...eta kitto!-n.

Urriak 17, barixakua:

Barixakua jolasian.

Gurasoak Berbetan-eko kideentzat tailerra. 17.30etan ...eta kitto!-n.



Urriak 19, domeka:

Nafarroa Oinez-era (Zangoza) autobusak.

Ego Gaietetik. Irteera: 08.30etan.

Buelta 18.30etan. 15 euro.

AZAROA

Azaroak 4, martitzena:

Idazlearekin Harixa Emoten.

Asier Serranoren "Abisalia" liburua.

19.00etan Portalean.

Azaroak 11, martitzena:

Olio dastaketa, Iker Diaz de Cerio, Arabar Errioxaren Olio eta Olibondoaren Mahaiko kidearen eskutik. 19.00etan ...eta kitto!-n.



Azaroak 14, barixakua:

Barixakua jolasian.

Gurasoak Berbetan-eko kideentzat tailerra. 17.30etan ...eta kitto!-n.

Azaroak 23, domeka:

San Andres Bertso Jaialdia.

19.00etan Portalean.

ABENDUA

Abenduak 2, martitzena:

Idazlearekin Harixa Emoten.

Miren Agur Meaberen "Kristalezko begi bat" liburua. 19.00etan Portalean.

Abenduak 3, eguaztena:

Euskararen Eguna.

Abenduak 12, barixakua:

Barixakua jolasian.

Gurasoak Berbetan-eko kideentzat tailerra. 17.30etan ...eta kitto!-n.

Abenduak 13 eta 14,

zapatua eta domeka:

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoak, Unibertsitate Laboralean.

Abenduak 31, eguaztena:

Kirolkitto! Kirol-sari

banaketa. 12.00etan

Coliseoan.

TEEN AJEAK

Orain dela urtebete inguru sortutakoa da Skapitalcity. 17 eta 30 urte bitarteko gazteak dira denak, eurretako baten aita den teknikaria izan ezik. Ska musika egiteko gogoak batu ditu Andoni Lopez (bajua), Andoni Martin (tronpeta), Julen Oruesagasti (saxofoia), Martin Azpilikueta (ahotsa), Andoni Vazquez (bateria), Angel Lopez (soinu teknikaria), Asier Argoitia (gitarra) eta Julen Mendicute (tronboia). Azken bi hauek azaldu dizkigute orain arte egindakoak.

- Noiz eta nola jaio zen taldea?

Orain dela urtebete inguru, betidanik ska taldea sortzeko gogoan zuten Cielito musika bandako hiru kideek bat egin eta hori izan zen abiapuntua. Inguruko beste lagun batzuekin asmo horri buruz berba egin eta, animatzen joan ziren neurrian, gaur egun taldea osatzen dugunak batzean sortu zen. Gutariko guztiak bandan ez bada Ustekabe fanfarrean edo bietan ibilitakoak gara eta oraindik ere horretan gabiltza.

- Ska gustatzen zaizuela argi dago, baina hori ez da ohikoa, inguru honetan behintzat, ezta?

Guk dakigula, Eibarren eta inguruan ez dago ska egiten duen beste talderik. Hala ere, guk ska egin nahi genuen eta, gainera, guk haizezko instrumentuak jotzen ditugunez, ska jotzeko instrumentuak ere bagenituen, horregatik animatu ginen.

- Badaukazue zuentzat eredu edo erreferente modukoa den talderen bat?

Bat baino gehiago gustatzen zaizkigu: Skalarriak, Bad Manners, The Specials, Calzones Rotos... Orohar, 80ko hamarkadako musika da eta horietako batzuen abestiak eta bertsiolak jotzen ditugu. Poliki poliki,

horiekin batera guk sortutako beste batzuk sartzen goaz eta, denborarekin, gure abesti gehiago eskaintzea gustatuko litzaiguke, asmo hori daukagu behintzat.

- Uda honetan eman duzue zuen lehen kontzertua. Nolako esperientzia izan zen?

Bai, Errioxan jo genuen lehenengoz eta oso esperientzia polita izan zen. Lehen aldia zenez oso urduri geunden, txarrizki batean jo genuen eta dena bete egin zen, gainera han inguruan oporretan zegoen Eibarko jende asko ere gu ikustera gerturatu zen eta oso ondo hartu gintuzten. Are gehiago, lehen kontzertu hori amaitu eta jarraian, eman ditugun beste bi kontzertuak eskaintzeko proposamenak han bertan egin zizkiguten. Kontzertu horien grabazioak editatu eta poliki poliki internetera, Youtubera igotzeko asmoa daukagu. Facebook eta Twitterren ere bagaude.

- Eta noiz izango dugu zuek herrian ikusteko aukera?

Ba laister, urriaren 4an, Sargardo Egunean Eibarren kontzertua emango dugu eta. Oraindik ez dakigu ordua, baina gau horretan Txaltxa Zelaian Garrapata eta Ekinocio taldeekin batera jotzen izango gara.



Skapitalcity
(SKA TALDEA)

"Ska egiteko gogoak eta instrumentuak, biak genituen"

AMAIA BARBERENA AMILLATEGI



"Zurekin bizitako uneak gurekin geldituko dira betirako gure bihotzetan"

ZURE LAGUNAK



+ OSASUN GUDA

Dentistak

arat
Hortz-Klinika

ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

UniverSalud

TORIBIO ETXEBARRIA, 4-1. Esk. Tel: 943 20 18 51

RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

Iribarrean adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

RPS: 53/13

bista eder
clínica dental - hortz klinika

Asko dira
gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak

20.000tik GORA PAZIENTE
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82

hortz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

Estetika klinika

abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Pedro Etxeberria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea
RPS 195/11

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkiu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

Fisioterapia

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20
Tlf.: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA

GASTESI
Hortz-Klinika
Ane Gastesi

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuina 943 70 00 90

MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896

FISIOTERAPIA

ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zkia. OSTEOPATIA
NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA

S. Agustin, 2-4 - M lokala Tel. 622 14 58 58

**HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...
... deitu 943-206776 telefono zenbakira**

+ OSASUN GAZTA

Okulistak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - sailarua
943 20 19 82

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinikia

• Presbiziaren kirurgia.

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2.º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93



**BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050**

**ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943, 799746**

PODOLOGOA
Erdiko klinika


Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOA

Maidor Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzako dorrea)

Tel. 943 20 86 41



Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa

Coro Ortiz de Urbina
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoa
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

Maialen Hernandez
PSIKOPEDAGOGOA

- Umeak, Nerabeurrekoak, Nerabeak
- Hiperaktibitatea, Autoestimua, Motibazioa, etb.

Tel. 605 75 75 06

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

(Ume eta helduendako)

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

**UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA
KABINETEA**

Arrate Garitaonandia

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

Bidebarrieta, 27-B (3. atea)
943 20 22 66



Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea

Tel. 943206823 eta 686859023



Herriko saskibaloiko bi taldeek bat egin dute

KA 1173 Saskibaloiak denboraldi berrirako entrenamenduak hasi ditu mailaz igotzeko helburuarekin: Katu-Kale izenarekin jarraituko du eta, Ruibalen desagerekin, Probintziako 3. mailan jardungo du gure herriko ordezkari bakarrak. Ruibaletik datoz, gainera, taldeko aurpegi berriak, Jon Arriaga entrenatzailetik hasita (Iñaki Sanchez bere bigarrena izango da). Wilf-ek eta Anderson-ek perimetroan jokatuko eta Ibai Lekunberrik pintura barruan taldearen konpetitibitate maila igoko dute. Alberto Arizmendiarieta taldearen kapitaina izango da; bestalde, Rubenek eta Miguelek taldea lagako dute eta Borja (Iana dela-eta) zalantza da. Entrenamenduak irekian egiten dituzte, martitzen eta eguenero, 20.10etatik aurrera, Ipurua kiroldegian, eta plantilla jokalaria berri gehiagorekin osatzeko prest.

tzeko eta Ibai Lekunberrik pintura barruan taldearen konpetitibitate maila igoko dute. Alberto Arizmendiarieta taldearen kapitaina izango da; bestalde, Rubenek eta Miguelek taldea lagako dute eta Borja (Iana dela-eta) zalantza da. Entrenamenduak irekian egiten dituzte, martitzen eta eguenero, 20.10etatik aurrera, Ipurua kiroldegian, eta plantilla jokalaria berri gehiagorekin osatzeko prest.



Jon Arriagak eta Iñaki Sanchezek zuzenduko dute talde berria.



Dianako hiru ordezkariak lortutako pieza eta sariekin.

Gisasolatarrak eta Aimar Gonzales Gipuzkoako ehiza txapelketara

Aurreko zapatuan Zambranen jokatutako ehiza txikiko eskualdeko txapelketan, Diana elkarteke ordezkariak lan bikaina egin zuten: horrela, Jose Luis Gisasolak beteranoen mailako txapela jantzi zuen beste behin, Iñigo haren semea bigarrena izan zen seniorretan eta postu bera eskuratu zuen Aimar Gonzalesek juniorretan. Aurreneko biek seina eper bota zituzten, eta Aimarrek hiru. Hirurak sailkatu dira hilaren 28an Zambranen bertan jokatuko den Gipuzkoako txapelketarako. Jose Luis Gisasola Gipuzkoako eta Euskadiko gaur egungo txapelduna da; Iñigo eta Aimar ere Euskadiko txapeldunak dira eta horregatik daude sailkatuta txapelari eusteko borroka horretan jarduteko.

Eibarko pilotariak asteburua kanpoan

Klub Deportiboko pilotariak heretik kanpo jardungo dute asteburu honetan: gaur Unamunzaga-Bengoetxea bikoteak Amezketan jokatuko du, Arri-llaga-Urionabarrenetxea jubencil mailako bikotea Andoainen lehiatuko da eta, azkenik, Agirresarobe-Agirrebeñak Hernanin izango du norgehiagoka.



Arrateko Kofradiaren egunean jokatutako Simon Aldazabal Sarian, bestalde, 57 gizonezko eta lau emakumezko hartu zuten parte. Irabazleak Edu de Miguel eta Aitziber Urkiola izan ziren. RAMON BETA

Osoro bigarrena Hondarribiko triatloian

Delteco Eibar Triatloi Taldeko Pello Osoro garaipenetik gertu geratu zen Hondarribiko triatloi sprintean, bigarren izan baitzen sailkapen orokorrean, Jon Unanue favorito espezialistaren atzetik. Bere anaia Txomin aurrekoetatik oso gertu ibili zen oraingoan (29.) eta Roberto Gartzia 61. geratu zen. Bestalde, asteburuan Donibane Lohitzuneko sprint triatloian Jon Illaramendik eta German Amuategik parte hartu zuten.



Bizikleta eguna egingo da domeka goizean

Mountain-bikea, zikloturismoa, gimkana, trizikloa eta umeendako motorrak izango dira protagonista Untzagan etzi egingo den Bizikletaren Egunean. Egitaraua 09.30etan hasiko da mountain-bike martxaren irteerarekin, Soraluzera joan eta Unben amaituko dena; handik ordu erdira zikloturisten martxa hasiko da, Trabakuatik Ondarroara jo eta Eibarren amaitzeko.

11.30etan gaztetxoentzako probak hasiko dira: 8-10 urte artekoek bi itzuli emango diote zirkuitoari; handik ordu laurdenera 8-12 urte artekoek hiru itzuli emango diote zirkuitoari. Eta 12.00etan gimkana izango da plazan, bi eta hiru itzulikoak adinaren arabera. Eibarko Txirindulari Elkarteak, antolatzaile moduan, ez du adin mugarik ezartzen parte hartzeko.



Xake Eskolako matrikulazioa zabalik

Klub Deportiboko Xake Eskolak ikasturte berrirako matrikulazio-epaia zabaldu du. Klaseak eguen eta barixakuetan izango dira 17.30etatik 18.30etara eta LH-ko 6. mailara arteko ikasleei zuzenduta daude. Klaseen prezioa 30 €koa da hiruhilabeteko eta klubeko bazkide izan beharra dago bertara joateko. Matrikula egiteko bi bide daude: e-postaz xakea@deporeibar.com helbidera mezua bidalita, edo barixakuetan 18.30etatik 20.30etara Klub Deportiboaren bulegora joanda. Matrikula egiteko azken eguna irailaren 27a izango da eta klaseak urrian hasiko dira.



Hierros Anetxeko errugbilariek ez dute denboraldia ondo hasi

Ezustekoa hartu zuen Peio Urkidik entrenatzen duen Hierros Anetxeko Ohorezko B mailako ligako lehen jardunaldian, Unben UBU Aparejadoreekin 13-23 galduta. Burgoseko talde igoberriak azken orduan fitxatutako James Devlin australiarra izan zen bere taldeko jokalaririk onena eta Gaztela-Leongo taldearen joko antolatua nagusi izan zen Gaizka Arrizabalagaren entsegu kolpearen eta Zamakolaren entseguaren aurrean. Eibarko taldea oraindik ondo josi barik dagoela ikusi zen.

urriak **Kilometroak ORION**

5

ERRIA TXIKOTA!

KMK ORIO 2014

10 *eurotan*

T. Etxebarriatik

AUTOBUS

Buelta:
19.30etan



Irteera:
09.30etan

zerBITZUA

J.A. MOGEL-eko GURASOEN ELKARTEA

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA



ba
bar Albert

ARMAGIN, 1
943 702 187

EGUNEKO MENUA
ETA KARTA
taberna berritan

Haurrendako aisialdi eskaintza zabala

Zapatuetako Tailerrak eta Afariketako Jolastera, ume eta gazteen aisialdirako egitasmoen barruan antolatutako eskaintza aurkeztu zuten martitzenean udaleko eta Astixako ordezkariak. Zapatuetako Tailerrak programaren barruan, Haur Hezkuntzako 3. mailakoentzat eta Lehen Hezkuntzako 1. mailakoentzat eta gurasoentzat "Argazki-albuma" izenburukoa prestatu dute (urriaren 18 eta 25ean eta azaroaren 1, 8, 15 eta 22an, Portalean). Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoentzat, berriz, Magia tailerra antolatu dute (urriaren 18 eta 25ean eta azaroaren 1 eta 8an, Portalean). Horietan izena emateko epea urriaren 3an amaituko da eta prezioa 10 eurokoa da. Eta Lehen Hezkun-

tzako 2., 3. eta 4. mailakoentzat Dantza Garaikide tailerra egingo da (urriaren 18tik azaroaren 8ra arte, Portalean). Hiru talde osatuko dituzte: LH 2. mailakoek 16.00etatik 17.00etara izango dute klasea eta LH 3. eta 4. mailakoek, berriz, 17.00etatik 18.00etara edo 18.00etatik 19.00etara. Prezioa 10 eurokoa da Eibarren errolatutakoentzat (20 euro besterentzat). Izena emateko Pegorara joan beharko da, irailaren 29tik urriaren 7ra bitartean.

Bestalde, Afariketako programaren barruan prestatutako eskaintza honakoa da: Haur Hezkuntzako 3. mailakoek astean egun bitan, egunean ordubetez euren auzoko ikastetxean bertan (Amaña, Arrateko Andra Mari, Urkizu, San An-



Asier Lopez de Viñaspre, Esther Kareaga eta Marisa Lapeira programazioaren aurkezpenean. SILBIA

dres, Jazinto Olabe eta Jardinetan) eskola orduetatik kanpora jolasteko aukera izango dute, urriaren 20tik maiatzaren 28ra arte. LHko 1. eta 2. mailakoek, berriz, urriaren 13tik maiatzaren 28ra bitartean jardungo dute jolasean (hauek ere astean egun bitan, baina eguneko saioak ordu eta erdi-

ko iraupena izango du). Afariketako izen-ematea Indianokua gaztelekuan egin beharko da (irailaren 22tik 26ra, 10.00etatik 13.00era eta 16.00etatik 18.00-etara) eta, bestela, Arrateko Andra Mari ikastetxean eta Amañako ludoetxean (irailaren 22 eta 23an, 16.00etatik 18.00-etara).

Irakurketa errazaren aldeko jarduerak

Juan San Martin liburutegiak hainbat jarduera antolatu ditu,

"irakurketa errazaren kontzeptua zabaltzeko asmoz". Astele-

henaz geroztik eta hilaren 26ra arte "Irakurtzea, plazerra eta eskubidea" izenburuko erakusketa bisitatu daiteke liburutegian bertan eta eguaztenean Irakurketa Erraza Euskadi elkarteko Blanca Mata Faurik "La lectura fácil: una herramienta de estímulo a la lectura para colectivos con dificultades lectoras" aurkezpen-hitzaldia eman zuen. Izan ere, elkarte horrek emandako datuen arabera, biztanleriaren

%30ak ezin du irakurri ulermen arazoak dituelako: "Irakurtzeko zailtasunak dituztenen artean, etorkinak, eskolara gutxi joandakoak, dislexikoak, adimen urria dutenak, zaharrak... daude". Erakusketa zazpi panel informatibok eta ikus-entzunezko batek osatzen dute eta, besteak beste, irakurketa erraza zer den, horretarako dagoen materiala eta hainbat kolektibotan irakurketa nola sustatu daitekeen azaltzen dute.



Arte tailerrak hastear

Urriaren 1ean ekingo die Maite Arriagak bere sormen artistiko tailerrei, Bista Eder kaleko egoitzan. Astelehenetik barixakura eskainiko dituen tailerrak Arteterapia / Sormena indartzea, ume zein helduendako pintura eta giza irudiaren marrazketa (modelo bizidunarekin) dira. Kurtso honetan, berritasun gisara, hainbat tailer trinko eskainiko ditu zapatu goizetan:

Yoga & Sormena, Pintura (aire librean, Esteban Orozek lagunduta) eta Umeek Sortzen dute. Interesa dutenek astelehenetik barixakura Arriagaren tailerretik pasa daitezke (10.00etatik 13.00era) edo, bestela, 622053933 telefono zenbakira deitu. Eta klasera joateko aukerarik ez duenarentzat, on-line egiteko ikastaroak ere eskaintzen dituela gogorarazi du.



Etxean, kalean... euskaraz bizi nahi dut

Bihar goizean, 11.00etan hasi eta 14.30ak arte, Euskaraz Bizi Nahi Dut azoka egingo da Untzagan (euria egingo balu, udaletxeko patioan). Ekintza nagusia azoka izanda ere, aurtengo egitaraua berrikuntza garrantzitsuenekin dator, 13.00etan eta 13.30etan flashmob-a egingo da eta: Esne Beltzaren "Euskaraz Bizi Nahi dut" abestiarekin koreografia prestatu dute eta antolatzaileek jende guztia pausoak ikasi eta dantzan egitera animatu nahi dute, "ederto pasatuko dute eta". Pausoak ikasteko bideoa Youtuben dago (<https://www.youtube.com/watch?v=97GFSRDEZY0>). Gauerako bertso musikatuen saioa prestatu dute Hankamotxak bertso eskolakoek (22.30etan Txalxta Zelaian). Arkaitz Oiartzabal Xamoa, Beñat Gaztelumendi, Jokin La-



bayen eta Manex Mujika bertsolariarekin batera Ixak Arruti eta Antton Aranburu gitarrak joleek jardungo dute eta gai-jartzailea Haritz Casabal izango da.

Patxi Lukeren rock-a Koskorren

Gaur gauerditik aurrera Patxi Luke soraluzetarraren rock kontzertua hartuko du Koskor tabernak (sarrera doan). Musika munduan oso ibilbide luzea egin du Lukek: 90eko hamarkadan, 17 urte zituela ekin zion gitarra jotzeari eta, harrezgero, instrumentuari lotutako guztia bere kabuz ikasten jarraitu du, estilo guztiak ikututa. Hala ere, bere errepertorioan batez ere rock eta heavy doinuetan oinarritutako musika nagusitzen da. Bakarka zein taldeka proiektu ezberdinetan parte hartu izan du eta gaurkoan bere abestiak Kiss, U2, Scorpions eta Rammstein moduko taldeen kantuekin tartekatzeak asmoa duela aurreratu du.



laburrak

HARIXA EMOTEN URRIAREN 7-AN

Ana Jakaren "Ez zen diruagatik" liburuarekin hasiko dira literatura saioak, urriaren 7an, martitzena, arratsaldeko 19.00etan Portalean. ...eta kitto!-k eta Liburutegiak elkarlanean antolatutako saioetan liburuen egileek ere hartuko dute parte, Antxon Narbaizaren gidaritzapean. Azaroan Asier Serrano (Abisalia) eta abenduan Miren Agur Meabe (Kristalezko begi bat) idazleen txanda izango da.



DJ SAIOA

Hirurok tabernak DJ saioa antolatu du zapatu gauerako: Benso (Kogollo Party Krew) eta B_ato (180°) musika ipintzen ibiliko dira, gauerdian hasi eta taberna itxeko ordua ailegatu arte.

SAN AGUSTIN, 5 **943 530 361**

Belardenda

Iratre

MILA ESKER GURE BEZEROEI
GUGAN JARRITAKO KONFIANTZARENGATIK

2014/15 EUSKARA IKASTAROAK

matrikula zabalik

aek

EUSKALDUNTZE OROKORRA
(AURREZ AURREKOA EDO AUTOIKASKUNTZA)

XEDE BEREZIKO IKASTAROAK
(AURREZ AURREKOA)

- 1. / 2. / 3. (EGA) eta 4. mailak
- Hizkuntza eskakizunak: IVAP, Irale, Osakidetza

ON LINE

- H-100 (Euskaltzaindiaren arauak)
- H-501 (Testugintza)
- 3. eta 4. mailak
- EGA lantzeko zerbitzu osagarriak
- Administrazio idazkiak
- Eskatzailearen neurriko ikastaroen diseinua
- Glotodidaktika

eibar@aek.org

Udalaren laguntzaz
BEKA SISTEMA

Sostoa 1, 1. solairua Tfoa: **943 201 379**

Kulturala martxa betean

Gaur 19.00etan ekingo dio Topalekuak ikasturteari, Arrate Kultur Elkarteko bazkideen lanekin osatutako erakusketarekin. Taldekako erakusketa honetan Charo Baglietto, Ester Fernandez de Maruri, Espe Zabala, Esteban Oroz, Fernando Retolaza, Jose Luis Irigoien, Bakarne Elejalde, Eli Eguren, Arrate Osoro, Maite Arriaga, Jesus Belaustegi eta Esther Galarza artisten orotariko lanak ikusteko aukera izango da.

Bestalde, ikastaro eskaintza zabala prestatu dute: urriaren 10etik abenduaren 19ra arte, Gorputza batzordeak antolatuta, Afrikako dantzak irakatsiko ditu Arantzeta Igleziasek barixakuetan, 18.00etatik 20.00etara (hilero 40 euro bazkideentzat, 45 euro besteentzat); irailean hasi eta

abendura bitartean, martitzen eta egue-netan, 12.00etatik 13.30etara Yoga klaseak emango ditu Marta Irustak (hilero 30 euro bazkideentzat, 35 euro besteentzat); Zurrumurru antzerki taldekoek, berriz, haurrentako antzerki tailerra prestatu dute (urriaren 10etik maiatzaren 29ra, barixakuetan, 17.00etatik 18.00etara). Prezioa hilero 25 eurokoa izango da bazkideren baten eskutik etorrira eta, bestela, 30 euro ordaindu beharko dira. Ikastaroetan izena eman edo argibideak eskatzeko, bulegora joan daiteke martitzen eta egue-netan, 17.00etatik 19.00etara, 943202299 telefono zenbakira deitu (mezua laga) edo, bestela, arratekultu@gmail.com helbidera idatzi.



Horrez gain, Hilerokoaren inguruko lantaldea osatu nahi dute. Horretarako hilaren 26an 18.00etan aurkezpen bilera deitu dute, Kultun bertan, eta gaiarekin interesa duen edozein parte hartzera animatu nahi dute.



Ceramic suite



Zeramika erakusketa Portalean

Gaur hasi eta urriaren 12ra arte Ceramic Suite erakusketa egongo da ikusgai Portaleko erakusketa aretoan. Zeramika garaikidearen gaineko jakintza progresiboa ezagutarazteko asmoz, EKG Euskal Keramikagile Garaikideen elkarteak eta Kuarto+2 kolektiboak prestatu dute taldekako erakusketa: "Portaleak erakusketarako eskaintzen duen eremu zabala aprobetxatu nahi izan dugu, 14 proposamen ezberdin bildu eta erakusketa oso bat egituratzeko. Erakusketa hainbat sorkuntzaren batuketaren emaitza da eta, horietako bakoitzak duen izaera eta erritmo desberdina dela eta, Ceramic Suite izena ipintzea erabaki dugu".

Kuarto+2 elkarte Xela Area, Juana Fernandez, Sonia Abollo, Mar Barral zeramikagile galiziarrek, Fani Sanchez Barreiro asturiarrak eta Cristina Guzman Traver valentziarrak osatzen dute. Guztiek euren jatorritik abiatuta, euren lana Euskal Herri- gerturatu dute, eta Eibarren euren lanik berrienak aurkezten izango diren EKG-ko zeramikagile euskaldunak, berriz, Maite Salutregi, Ramon Berroondo, Ione Urain, Koro Martinez, Loli Pinedo, Ines Gonzalez de Zarate, Jabi Berasategi eta Txaro Marañon dira. Erakusketa martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara bisitatu daiteke (irail-eko asteburuetan itxita egongo da).

13.500 TXIKITTO! URTEAN, 829 BAZKIDE

...eta kitto! **ko**
bazkide izan nahi dut

...eta kitto! Euskara Elkartea
Urkizu 11, solairuartera. EIBAR. Tel.: 943 20 09 18
elkartea@etakitto.com

urteko kuota

- 16 urtetik behera
5 euro
- Lanean dihardut
45 euro
- Langabea, ikaslea,
jubilatua, etxekoandrea
15 euro
- Borondatez, diru
gehiago eman nahi dut
..... **euro**

Izen-abizenak: _____
 Helbidea: _____ Herria: _____
 Telefonoa: _____ e-maila: _____
 Lanbidea: _____ Jaiotze data: _____
 Kontu zenbakia (20 digito): _____

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, AMETS, bixar lau urte beteko dozuz-eta. Ondo pasa! Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, LUKEN, domekan hiru urte beteko dozuz-eta. Muxu bat etxekuen eta, batez be, Ander eta Jonen partez.



Zorionak, FLORENCIA Markinez Arrieta, astelehenian 100 urte beteko dozuz-eta. Zaintzaille eta etxekuen partez.



Zorionak, JOKIN, Arrate egunian hiru urte egin zenduazzen-eta. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, AINHOA, astelehenian urtiak egingo dozuz-eta. Famelixaren eta, batez be, zure mutiltxuen partez.



Ongi etorri, DANEL!, hillaen 7xan etorri zifialako gure artera. Milla muxu famelixa osuaren eta, batez be, Markelen partez.



Zorionak, LUCIA, atzo 11 urte egin zenduazzen-eta. Muxu asko ama, aitta eta Marinaren partez.



Zorionak, BEÑAT, gaur lau urte egitten dozuz-eta. Muxu haundi bana etxekuen partez.



Zorionak, YURENE, gaur sei urte betetzen dozulako. Laztan haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, JONE, domekan hiru urte egingo dozulako. Muxu asko etxekuen partez.



Zorionak, UXUE, eguaztenian bi urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, JUNE, gaur zazpi urte betetzen dozuz-eta. Laztan haundi bat etxekuen partez.



Gure bihotzetatik, zorionak, ODEI, eta zuri be bai, UDAZKEN, berandu izan arren. Gure pitufo maittiak...



Zorionak, MARTXEL, bixar zazpi urte beteko dozulako. Muxu asko etxekuen eta, batez be, Julenen partez.



Zorionak, bikote: MADDI (julixuan 12 urte bete zenduazelako) eta PAULE (domekan zortzi egingo dozuz-eta). Aitta, ama eta Xabierren partez.

zinea Coliseoan

(ANTZOKIAN)

20an: 19.45, 22.30

21ean: 20.00

22an: 20.30

"El Niño"

Zuzendaria: Daniel Monzon



(ANTZOKIAN)

20an: 17.00

21ean: 17.00

"Como entrenar a tu dragon 2"

Zuzendaria: Dean DeBlois



Zorionak, JOSU Davila, gaur 10 urte egitten dozulako, eta JOSE LUIS Eguren, 23an urtiak beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixakuen partez.



Zorionak, NEREA, gaur zazpi urte betetzen dozuz-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, DANEL, mutil haundi! Muxu haundi bat famelixakuen partez.

BARIXAKUA 19

INDIANOKUA

16.30. Play / Wii.
Indianokua gaztelekuan.

LEGARREKO JAIK

20.00. Txupinazoa.
Kalejira, trikitilari eta buruhandiek, zaharren egoitzan hasi eta txosnaraino.

20.30. Patata tortila txapelketa.

21.00. Herri afaria (auzoko umeentzat). Ondoren, auzokideen txiste saioa.

22.30. Dantzarako musika, DJ-ekin. Legarren.

KONTZERTUA

20.30. Rosa Cedron. Sarrera: 10 euro. Coliseoan.

KONTZERTUA

00.00. Patxi Luqueren kontzertua. Sarrera doan. Koskor tabernan.



ZAPATUA 20

EUSKARAZ BIZI

11.00/14.00. Eibarren Euskaraz Bizi Nahi Dut azoka.

13.00 eta 13.30.

Flashmob-a. Untzagan (euria egingo balu, udaletxeko patioan).

22.30.- Bertso musikatuak: Arkaitz Oiartzabal "Xamoa", Beñat Gaztelumendi, Jokin Labaien eta Manex Mujika bertsolariekin, Ixak Arruti eta Antton Aranburu musikariekin eta Haritz Casabal gai-jartzailearekin. Txaltxa Zelaiko kioskoan.

LEGARREKO JAIK

12.00. Kalejira, trikitilariekin, zaharren egoitzaraino.

12.30. Txorizo pintxopotea, Piztu elkartean.

13.00. Umeendako ekintzak.

14.30. Herri bazkaria.

16.30. Dantzaldia, Etel eta Agirrerekin.

17.30. "Trastelekua" umeendako ikuskizuna.

19.00. Txokolate-jana.

20.00. Kalejira, buruhandiek.

20.30. Erromeria Xero Xieterekin.

23.00. Kontzertua: The Vartools eta Norman. Legarren.

BIEN APARECIDA JAIK

16.30. Mahai-jokoak, Kantabriako Etxeko Jardinetako egoitzan

INDIANOKUA

17.00. Sukaldaritza. Indianokua gaztelekuan.

DJ SAIOA

00.00. Benso (Kogollo Party Krew) + B_Ato (180°). Hirurok tabernan.

DOMEKA 21

BIZIKLETAREN EGUNA

09.30. Mountain-bike martxaren irteera.

10.00. Zikloturista martxaren irteera.

11.30. 8-10 urtekoentzat bi buelta zirkuitora.

11.45. 8-12 urtekoentzat hiru buelta zirkuitora.

12.00. Ginkana. Salda eta txorizoa. Untzagan.

BIEN APARECIDA JAIK

16.00. Igel-toka eta "cuchillo" txapelketak. Ipuruako bolatokian.

INDIANOKUA

17.00. Kanpo-jolasak. Indianokua gaztelekuan (kanpoan).

hildakoak

- Begoña Esteban Del Rio. 49 urte. 2014-IX-2.
- Veneranda Pallas Perez. 78 urte. 2014-IX-11.
- Amaia Barberena Amillategi. 30 urte. 2014-IX-13.
- Tomas Eizagaetxeberria Basterretxea. 78 urte. 2014-IX-13.
- Angel Apaolaza Zaitegi. 82 urte. 2014-IX-16.
- Itziar Aristondo Amutxastegi. 72 urte. 2014-IX-17.

jaiotakoak

- Markel Segurola Ubera. 2014-VIII-29.
- Danel Casado Martinez. 2014-IX-7.
- Ekain Azpiri Egidazu. 2014-IX-10.
- Irene Baskaran Velasco. 2014-IX-11.
- Paula Gonzalez de Audicana Iriondo. 2014-IX-11.

EGUAZTENA 24

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Eibarko Kantuzaleak abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

EGUENA 25

KALERATZEAK STOP

19.00. Kaleratzeak Stop Debabarrenaren batzar irekia. Portalean (3. solairuan).

diru-laguntzak

✓ Diru-laguntzak ikasleei / Umeak Eskolara

Zenbatekoa: 60'10

euro. **Eskaerak**

aurkeztea: Eibar

Merkataritza Gune

Irekian (Untzaga Plaza,

7- 3. behea), urriaren

31ra arte. **Informazio**

gehiago: Pegoran.

HOROSKOPOA

ARIES

Udan jairik jai ibili ostein gorputzari atseden ematea tokatzen da orain. Saiatu ahalik eta gehien lo egiten.

TAURUS

Udako lige hori ahaztu ezinik zabilta, baina zuk badakizu ezinezkoa dela momentuz. Denborak erabakiko du.

GEMINI

Zer gertatzen zaizu? Barruan duzun hori baten bati kontatzea gomendatzen dizut: ez da horrenbesterako. Ikusiko duzu!

CANCER

Nahikoa da. Berba besterik ez duzu egiten, besteena entzun gabe. Arnasa hartzeko besterik ez bada ere, isildu!

LEO

Horrenbeste eguzki hartzea ez dela ona. Ez al dakizu dena tamainan hartu behar dela? Probatu autobrontzeadorearekin.

VIRGO

Inork baino gehiago ligatu duzu uda honetan eta, oraindik ere, sex-appeal topera! Asteburuan ere arrakastatsu!

LIBRA

Nork esango zizun horrenbeste denboraz itxaroten egon zarena Arrateetan lortuko zenuela? Orain aprobetxatu.

SCORPIUS

Ikasturte berria, look berria, ilea moztu, janzkera berritu eta kalera! Denak aho zabalik lagako dituzu, zalantzarik ez.

SAGITTARIUS

Zu bai txapeliduna! Zuk uste baino hobeto zabilta-eta egunerokotasunaren erronkari aurre egiten. Segi horrela!

CAPRICORNIUS

Udan hain ondo pasata, egunerokoak atzera botatzen dizu. Udazkenak ere baditu gauza onak; lasai hartu.

AQUARIUS

Arraro samar zabilta azken aldian, amorratuta moduan. Norbaiti zer bait esan behar badiozu, egin lehenbailehen.

PISCIS

Aurreko astea gogorra izan zen zuretzat, baina hori atzean gelditu da eta une goxoak biziko dituzu aurrerantzean.

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

erakusketak

- ✓ **Irailaren 25era arte**
ARRATE KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN artelanen erakusketa. *Topalekuan*
- ✓ **Irailaren 26ra arte**
"IRAKURTZEA, PLAZERRA ETA ESKUBIDEA".
Juan San Martin Liburutegian
- ✓ **Irailaren 30era arte**
JOSU GARAIEN argazki erakusketa.
Klub Deportiboan
PEDRO ARRIOLARENN "Uzbekistan" argazki erakusketa.
Portalea tabernan.
ENRIQUE LORENZOREN argazki erakusketa.
El Ambigu tabernan
- ✓ **Urriaren 12ra arte**
CERAMIC SUITE erakusketa. *Portalean*

Ikastaroak

- ✓ **UEUko ikastaroak**
Eskaerak eta informazioa: www.eibar.net helbidean eta Pegoran.

lehiaketak

- ✓ **XV. Asier Errasti Film Laburren Jaialdia**
Lanak aurkeztea: Portalean, **urriaren 3ra arte**. Informazioa: www.planocorto.es / www.eibar.net; cultura@eibar.net; 943708435 telefonoan.
- ✓ **XXVII. I. Ojanguren Argazki Lehiaketa**
Lanak aurkeztea: Portalean, **urriaren 3ra arte**. Informazioa: Portalean.
- ✓ **Sanandresak Eibarren Kartel Lehiaketa**
Lanak aurkeztea eta informazioa: **Urriaren 14ra arte**, Pegoran.
- ✓ **Playback Lehiaketa**
Irailaren 19 eta 20an, 18.00etan, El Corte Inglesean.

	9		1	2			5	4
						1		
	3	1		7				
3							7	9
			3		8			
9	1							3
				8		7	9	
		6						
8	2			3	5		6	

farmaziak

- ✓ **barixakua 19**
EGUNEZ Larramendi (Calbeton, 19)
- ✓ **zapatua 20**
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- ✓ **domeka 21**
EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **astelehena 22**
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
- ✓ **martitzena 23**
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- ✓ **eguztana 24**
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **eguna 25**
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **barixakua 26**
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)

GAUEZ BETI

Azkue (T. Etxebarria, 4)

SUDOKUA

2	6	4	3	5	7	9	1	8
7	8	3	4	1	9	2	5	6
5	9	1	6	2	8	3	4	7
4	5	6	9	3	1	7	8	2
9	3	7	8	4	2	1	6	5
1	2	8	7	6	5	4	3	9
6	7	9	1	8	3	5	2	4
8	1	2	5	7	4	6	9	3
3	4	5	2	9	6	8	7	1

AURREKOEN EMAITZA

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuua	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.50, 19.50 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.50etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.15etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.15etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarko erdialdean. 2 logela eta egongelarekin. Tel. 602-490595.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 400-450 euro inguru ordaintzeko prest. Tel. 632-569245. Waris.
- Gizonezkoak pisua hartuko luke alokairuan. Konpartitzeko. Tel. 660-833346. Fernando.
- Logelak alokagai T. Etxebarria kalean. Tel. 631-325616. Andrea.
- Pisua hartuko nuke Eibarren alokairuan. Tel. 632-192408.
- Lagun bakarrik pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 656-758793.
- Pisua alokatzen da Eibarko Arane kaleko Jatako eraikinean. Logela bakarrekoa. Altzairu berriak eta diseinuzkoak. 500 euro. Tel. 645-735442.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Eibar erdialdean. Tel. 617-688311.
- 70 m²ko lokala alokatzen dut Eibarren. Barra, zerbitzua eta abarrekin. Gazteenzako baimenarekin. Tel. 679-425467.
- 25 m²ko lokala hartuko nuke errentan. Merke, ahal bada. Tel. 618-854121.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Berehala hasteko moduan. Erreferentziak. Tel. 648-054046.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Berehala hasteko moduan. Erreferentziak. Tel. 674-342769.
- Emakume euskalduna eskaintzen da lan egiteko. Tel. 606-502567.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-417995.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 633-641988.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 647-885099.
- Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Geriatria ezagutza, Magisteritza... Berehala hasteko prest. Tel. 679-335510.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Krisiaren aurkako prezioan. Tel. 655-231059.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 674-713262.
- Gizona eskaintzen da margolari moduan, elektrizista jarduteko edo jatetxeko sukaldean lan egiteko. Tel. 679-910991.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Goizez. Tel. 672-307618.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 628-740765.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 655-677035.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-110716.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gauzez ere. Tel. 660-514858.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-526228.
- Geriatria formazioa duen emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka zein asteburuetan. Tel. 645-366850.
- Neska eskaintzen da asteburuetan dendan jarduteko edo garbiketara lanak egiteko. Tel. 638-002368.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanetarako. Tel. 602-057896.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-040297.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 633-808931.
- Mutila eskaintzen da pintore jarduteko eta etxeetako edozein motako erreformak egiteko. Tel. 632-569245 eta 673-271449. Waris.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan. Tel. 602-186462.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 688-901667 eta 943-530908.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanetarako. Baita orduka eta asteburuetan ere. Tel. 638-338816.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 696-802587.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Tel. 632-370798.
- Emakumea eskaintzen da garbiketara lanak egiteko eta tailerrean lan egiteko. Tel. 664-622504.
- Emakumea eskaintzen da gauzez zein orduka umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-253170.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da orduka garbiketara lanak egiteko. Tel. 636-841158.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 636-362251.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka zein gauzez. Tel. 654-891077.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduetegi zabala. Tel. 688-297160.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduetegi zabala. Tel. 679-910991.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 633-244397.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (esperientzia) eta garbiketarako egiteko. Tel. 642-609678.
- Geriatria tituludun emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 652-532589.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 630-531469.

4.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Tel. 642-335112.
- Laguntzarako emakumea (30-45 urte tartekoa) behar da. Interna. Esperientziarekin. Tel. 629-053402.
- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Esperientziarekin. Bidali kurrikuluma: davidtubolab@gmail.com
- Kamarerak/roak behar dira Eibarko jatetxe batean. Tel. 667-908392. Alaia.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaerak

- Ingeniaritza Mekanikoko 2. mailako ikasleak klase partikularrik behar ditu, Mekanika eta Elektronika ikasgaietarako. Premia handia. Tel. 653-748088.
- Irakaslea behar da 2. Batxilergoko Matematikak eta Ekonomia klaseak emateko. Tel. 652-700114.
- Ingeleseko irakasle partikularra behar da, Batxilergo mailakoa. Tel. 652-700114.

5.2. Eskaintzak

- Diplomatura mailako tituludun neska eskaintzen da klase partikularrik emateko. Tel. 662-283676.
- Unibertsitate ikasketak egindakoek klase partikularrik ematen dituzte. Taldeka edo banaka. Beherapen bereziak. Tel. 687-033834. Nerea.
- Ingeles Filologian lizentziatua eskaintzen da klase partikularrik emateko. Tel. 688-650752.
- 24 urtetan Ingalaterran bizi izandakoak bere burua eskaintzen du ingelesez praktikatzeko. Tel. 679-910991.
- LHko ikasketak amaituta dituen mutil euskalduna eta arduratsua eskaintzen da LHko umei klase partikularrik emateko. Tel. 634-430647.
- Neska eskaintzen da klase partikularrik emateko (arreta arazoak, ikasteko zailtasunak). Esperientzia. Ekonomikoa. Tel. 625-019711.
- Alemanierazko klase partikularrik ematen ditu. Metodo erraza eta atsegin. Ikasleen trukaketa eta EOJ-rako azterketen prestaketa. Tel. 670-793312.
- Ingeniari industrialak klase partikularrik ematen ditu. DBH, Batxilergoa, Heziketa Zikloak eta Unibertsitatea. Talde murriztuak. Tel. 669-622642. Mireia.
- LH eta DBHko klaseak ematen dira. Ikasgai guztiak. Klaseak bakarka egiteko aukera. Tel. 652-757926.
- Ingeleseko klaseak ematen dira. Maila guztiak. Irakasle natiboa. Tel. 652-763264.
- Haur Hezkuntzan eta Atzerriko Hizkuntzan espezializatutako irakasleak klase partikularrik ematen ditu LHko umeentzat Isasin. Tel. 663-006640. Ane.
- Ingeniari industrialak (tituloduna) klase partikularrik ematen ditu. Tel. 695-756447.
- Ingeniaritza tituludun neska eskaintzen da klase partikularrik emateko. Tel. 670-251265.
- Fisika eta Matematikako klase partikularrik ematen ditu. Gehienez 4 lagunekin taldeak. Tel. 615-705945. Iratxe.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- 0'90eko sukaldea salgai, gas-bonbonak eramateko eta labearrekin. Baita 0'90eko ohe artikulatua. Berriak. Tel. 617-688311.
- Umeendako karro-silla salgai. 90 euro. Tel. 632-569245. Waris.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Aurreko zapatu gauean, irailaren 13an, Eibarren hartutako taxian nire Samsung S2 mugikorra jaso zuen mutuari: bateriarik gabe egongo da eta mesedez deituidazu. Eskerrik asko. Tel. 666-329728. Joana.
- Zilarrezko eskumuturrekoa aurkitu zen Arrateko txosnan. "Itsaso. 1998-III-25" du grabatuta. Tel. 655-987126.

6.4. Bestelakoak

- Nazkatuta erostekak egiteaz? Pisu larregi? Amaidu da sufrimendua. Erosetak egin eta etxera eramango dizkizugu. Tel. 695-718855. Lorea.

Herriek erabaki !



eibarko!ehbildu

...eta kitted!-ren

itzulpen

zerbitzua



**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelarrera,
gaztelarik
euskarara,
eta ingelesetik
euskarara.**

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.

- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.



elkartea@etakitto.com



Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun

 innovadental
clinicas

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com